




LIBURUA

Emakumeen odola



LARRY D. MOORE

NESKAMEAREN IPUINA

EGILEA: MARGARET ATWOOD
ITZULTZAILEA: ZIGOR GARRO

TXALAPARTA 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

Margaret Atwoodek 1985ean argitaratu zuen distopia honek gogorarazten digu feminismoak lortutako aitzinamendu bakoitza erraz galdu daitekeela. Freden ezizenez ezagutzen dugun protagonistak bere istorioa kontatuko digu: komandantearen eta bere emaztearen etxean bizi den neska-me da, eta bere betebeharra haiantzat haurdun geratzea da, hilean behin hirurek egiten duten *Zeremonian*.

Distopia honetan ez-desiragarria eta beldurgarria den etorkizuna deskribatzen zaigu: diktadura totalitario militar-kristaua, hondamendi ekologiko baten ondoren gehienak antzutu direnean. Emakumeak (Komandanteen Emazteak, haien Alabak, Neskameak, Marta deituriko etxeko langileak eta Ekonoemazteak deituriko langile klasekoak) eta Ezema-

kumeak (zaharrak, antzuak, feministak, lesbianak, arau-urratzaileak eta genero-arauak betetzen ez dituzten gizonak) daude.

Eskuin muturreko alderdien gorakada, abortuaren kontrako legeak, haurdunaldi subrogatuaren legeztatzea, lurra-aren ustiaketa neoliberalak, pandemia eta eskubideen murrizketa... Argi dago ez duela gaurkotasunik galdu eleberri honek. Izan ere, fikzio espekulatiboa dela dio bere egileak (Lurrean kokatutakoa, benetan gerta litekeena, errealitatean oinarritutako fikzioa).

2017an estreinatu zen telesailak egin du ezagun liburu hau Zigor Garrok kartzelan zegoela itzuli zuen eta Txalapar-tak 2020an argitaratu. Eragin handia izan du, adibidez, Trumpen kontrako eta abortatzeko eskubidearen aldeko ma-

nifestazioetan, AEBetan eta Argentinan. Gainera, 2019an *Testamentuak* eleberria argitaratu zuen Atwoodek jarraipen gisa.

Zapalkuntza eta erresistentzia, flashbackak aurreko bizimoduaren kritika eginez (80ko hamarkadako Ipar Amerikakoa), eta protagonistak bizi duen esklabutza-aren inguruko gogoetak agertzen zaizkigu. Hala ere, badu alderdi positiborik: emakumeen arteko elkartasuna edo sororitatea, eta jakintza femeninoen balioespena (zientzia domestikoa).

Neskameen uniformeko buru-estalkiak ikusezin bihurtzen ditu eta soinekoa gorria da: hileko, ugalkortasun, sexu, bekatu, arrisku eta biolentziaren sinboloa. Istorio honek, liburuaren azaleko erdiko irudiak nola, horren azpian dagoena agerian uzten digu, historia bestela eraiki dezagun. ●